

## KOSTUEN EGITURAK

Negozio eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak kostuen egitura deritzogu.

Enpresa guztiek hasieran hainbat gastu izan ohi dituzte sortzeko. Gure kasuan hasierako gastuak hurrengoak izango lirateke:

### HASIERAKO INBERTSIOA

Kartulinazko txartelak	0,19 x 20	3,8
2.eskuko bizikleta elektrikoa		480
Bizikletarako karroa		120
2 mugikor	169€ x 2	338
2 ordenagailua	300€ x 2	600
250€ lehen erosketarako		250
Datafonia		40
Riñonera		15
Bankuan kontu korrontea		0
Egunkarian propaganda		101,3
Aldizkariak		400
2 telefono zenbaki	10€ x 2	20
<b>GUZTIRA</b>		<b>2368,1</b>

Hasierako gastuak alde batera utzita, hilabetero gastu desberdinak izango genituzte. Euskalteli hilabetean 20€ ordaindu beharko genizkioke bi mugikorrenatik. Horretaz gain, gure bizikleta elektrikoaren mantenurako eta kargatzeko hilabetean 50€ gordeko ditugu, edozein momentutan behar izanez gero bote bat izateko.